



Orona
fundazioa

JARDUERA- MEMORIA

2019





Orona
fundazioa

JARDUERA - MEMORIA

2019

aurkibidea



1. Agurra	6	7. Ekarpen-eredua	11
2. Aurkezpena eta fundazioaren helburuak	7	8. Proiektuak	12
3. Jardun-esparruak eta -eredua	8	8.1 Diametro 200	12
4. Barne-garapena	8	8.2 Kultura musikala	14
5. Kanpo-garapena	9	8.3 Ondare immateriala	15
5.1 Instituzionala	9	8.4 Akademikoa	17
5.2 Nazioartea	9	8.5 Kohesio soziala	19
5.3 Orona Ideo	9	8.6 Jarduera bereziak	21
5.4 Ingurukoa (Orona Fundazioa Gizarterantz)	10	9. Jardueren zerrenda	22
6. Martxan dauden proiektuen helburuak	11	9.1 Diametro 200	23
		9.2 Kultura musikala	23
		9.3 Ondare inmateriala	24
		9.4 Akademikoa	26
		10. Kudeaketako beste alor batzuk	29
		10.1 Ekitaldien kudeaketa	29
		10.2 Kantina	29
		10.3 Harreman instituzionalak eta publikoak	29

■ 1. Agurra

ORONA gizarte- eta enpresa-proiektu bat da, eta konpromisoa, konfiantza, fidagarritasuna, malgutasuna eta bizitasuna dira haren funtsezko balioak. Balio horiek dira, printzipio kooperatiboekin batera, gure ingurunearekiko dugun erlazioaren oinarria.

ORONA osatzen duten pertsona guztiei konpainiaren etorkizuna eraikitzen duten erabakietan parte hartzeko aukera eta gardentasuna bermatzen dizkiegu. Eta etengabe hobetzen ari den kalitatezko eta bikaintasunezko zerbitzua eskaintzen dugu. Talentu handiko profesionalak ditugu; haien arduraren da gure balio-proposamena aurrera ateratzea, eta guk enpleguaren kalitatea eta lan-bizitza egonkor eta osasungarria eskaintzen dizkiegu. Eta, noski, gure gizarteari solidaritatea eta lankidetzaren emateko konpromisoa du **ORONAK**.

Gizarte-erantzukizun korporatiboaren barnean, funtsezkoak dira errespetua eta jasangarritasuna zaintzeko jardunbide egokiak. 2019an, lanean jarraitu dugu alderdi horretan aurrera egiteko, eta gure produktuen fabrikazioan eta gure sistemen eraginkortasun energetikoan sartu dugu sentsibilitate hori.

Testuinguru horretan, **Orona Fundazioak** egiteko garrantzitsua du, gizarteari zerbitzu ematen baitiugu, eta, halaber, gure proiektua osatzen duten pertsonen **Orona Fundazioaren** ekintzak erakundeetara, gizartera, ekonomiara eta hezkuntzara iristen dira. Gainera, **Orona Ideoren** bereizgarria da bere inguruneari irekia egotea, eta, testuinguru horretan, trebakuntza-eta garapen-proiektuak eta gizarte- eta kultura-ekimenak ere babesten ditu Oronak.

2019an, sei urte bete ditu **Orona Ideok**. Bera da gure berrikuntza-ereduaren oinarria. Jasangarritasunaren alde egiten dugun lanaren adierazgarria da, eta etengabe gizartearekin harremanetan egoteko aukera ematen digun ekosistema bat sortzen du. Etorkizunarekiko eta ingurunearekiko konpromisoak funtsezkoak dira **ORONArentzat**; beraz, ingurune kolaboratiboan bitartez jakintza sortzearen alde egiten dugu, unibertsitatearen, ikerketaren, enpresaren eta gizartearen arteko harremanean oinarrituta. Ildo horretatik, errealitate bihurtu da jada **Orona University**, gure unibertsitate korporatiboa.



Atsegin handiz aurkezten dizuegu memoria hau, non alderdi horiek guztiak azaltzen baititugu, gure ekintzek jasangarritasuna indartuko dutelakoan enpresa-munduan eta gizartearen.

Pixkanaka-pixkanaka goaz aurrera, oraindik egiteko handia dagoela jakitun.

Xabier Mutuberria
Oronako zuzendari nagusia



2. Aurkezpena eta fundazioaren helburuak

Estatutuen arabera, irabazi-asmorik gabeko erakunde bat da Fundazioa, eta honako hau da haren helburua: gizartearen beharren bilakaerak eskatzen dituen jakintza-erlo guztietan hezkuntza-, prestakuntza- eta ikerketa-jarduerak sustatzeko jardura eta ekimenak egitea.

Ildo horretan, Fundazioaren helburuek barnean hartzen dute hezkuntza- eta ikerketa-zentroak sustatzea eta kudeatzea;

hezkuntza-, prestakuntza- eta ikerketa-jarduerak egiteko baliabide materialak antolatzea; eta kongresu, mintegi, ikastaro, jardunaldi eta hitzaldiak eta estatu barruko eta nazioarteko nolanhiko topaketak babestea eta antolatzea.

Horrez gain, Fundazioaren helburua da ekonomia soziala eta kooperatibismoaren ezaugarrien hedapena sustatzea eta babestea, lan-munduan sartzea sustatzea, eta era guztietako kultura-, gizarte-, ongintza- eta laguntza-jarduerak babestea.

Fundazioaren bitartez, ORONAK gizartearekin duen konpromisoa indartu nahi du, oinarriak sustatuz bere hezkuntzako, eskualdeko, erakundeko, nazioarteko eta ikerketako garapenerako.

3. Jardun-esparruak eta -eredua

Inguruko gizarteari garatzen laguntzea da Orona Fundazioaren helburua, gizarteari on egiten diona ORONArentzat berarentzat ona delakoan.

Bere ingurua hainbat ikuspegitik garatzea da Orona Fundazioaren asmoa: sozioekonomia, kultura, hezkuntza, gizartea eta kirola. Horretarako, eredu proaktibo bat du oinarri, gizarte-eragileekin batera proiektuak lantzean oinarritua, eta bere azpiegiturak, harremanak, giza kapitala eta, beharrezkoa bada, funts-bilketa jartzen ditu.

Orona Fundazioak, barne-zerbitzua eman nahi duen aldetik, badu beste helburu nagusi bat: ORONAKo giza kapitalaren garapen integrala.

Arlo bakoitzean finkatutako helburuak lortzen laguntzeko ekimen zehatzen inguruan ardatzen da Fundazioaren lan-ildo bakoitza.

Barruko eta kanpoko helburuen ikuspegi orokorra du gidari Orona Fundazioak, eta, hala, funtzionamenduari koherentzia ematen zaio.

4. Barne-garapena

Teknologiari begiratzen dioten **unibertsitateek** ikertu egiten dute, ezaupide berriez jabetzeko eta haiek produktu, prozesu eta zerbitzu berrietan baliatzeko.

Teknologia-zentroak, berriz, ikerketa aplikatuaren aroko liderrak dira, eta zientzia aplikagarria dela eta produktu eta prozesuak berritzeko gai direla frogatzea dute helburu.

Enpresak, azkenik, emaitzak produktu eta prozesuen berrikuntza bihurtzen dituen industria aurreko ikerketaren lider dira, eta emaitzak industrializatzea eta berrikuntza barneratzea ziurtatzen dute.

Lehenik, **barne-garapenaren** alorrean, Orona Fundazioaren jarduera guztiak biltzea du helburu, barne-ikuspegitik. Bigarrenik, **komunitatearen garapenaren** alorrean, inguru hurbilean eragina izan nahi du, ikastegien eta gizarte-eragileen bitartez, boluntarioak ardatz.

Hirugarrenik, **liburutegi-labotekan**, hezkuntza-arloko eta inguruko garapenaren alorrean, ezaupideak sortzeko jarduerak egiten ditugu.





2019ko Donostiako enpresen lasterketa



2019ko Orona Kontzertua

5. Kanpo-garapena

5.1 Instituzionala

Erakunde-arloan garatzeko lan-ildoak jorratzeko, elkarlanean aritzen gara askotariko erakundeekin:

- Nazioarteko, estatuko, eskualdeko eta tokiko erakundeak.
- Administrazio publikoak (foru-aldundiak, udalak, ministerioak eta abar).
 - Enpresa- eta profesional-elkarreak (merkataritza-ganberak, profesionalen elkargoak eta abar).
 - Enpresak.
 - eta abar.

5.2 Nazioartea

Nazioartean garatzeko lan-ildoak bere egiten ditu erakunde-arloan garatzeko lan-ildoko helburuak eta metodologia, eta nazioartean aplikatzen ditu.

Alor honetan, Europako zer herrialdetan dagoen ORONA, haiek dira lan-ildo honen funtsezko ardatza.


5.3 Orona Ideo

Orona Ideo garatzeko lan-ildoaren helburua unibertsitate-munduarekin harremanetan ezartzea da, bereizgarri paregabe haiek dituen proiektu bat garatuz:

- Fakultatearen ohiko ereduak aldatzea, eta espazio berean diziplina desberdinak nahastea.
- Lan-arloarekin lotzea, eta bermatzea ikasketak baliogarriak izango direla lanean.
- Estatuko nahiz nazioarteko hainbat unibertsitate eta hezkuntza-erakunderen esperientziak eta ereduak barneratzea.



PBLDay 2019: Sari banaketa eta proiektuen aurkezpena



- Etengabeko prestakuntza ezartzea, lan-ibilbide osoa trebakuntza bermatzeko.

2019ko irailean, seigarren promozioa sartu zen Mondragon Goi Eskola Politeknikoak (Mondragon Unibertsitatea) Orona Ideon ematen dituen graduetan. Egun, hauek dira ikasle-kopuruak:

Ingeniaritza Ikasturtea	Guztira
Energia	108
Ekoteknologia Industrialak	75
Enpresa Berrik. eta Proiektu Zuz. Masterra	41
Industria Masterra	81
Zibersegurtasuneko Masterra	6
Guztira	313

5.4 Ingurukoa (Orona Fundazioa Gizarterantz)

Ingurua garatzeko lan-ildoak dago zuzenki errotuta tokiko gizartean, haren garapena hainbat ikuspegitatik sustatzea baitu helburu.

- Orona Fundazioak bere inguruan aberastasuna sortzen lagundu nahi du.
- Kultura eta gizartea garatzen lagundu nahi du Orona Fundazioak.
- Ikasleei unibertsitatean hasi aurreko orientabide akademiko eta profesionalarekin lagundu nahi die Orona Fundazioak.

Bidasoaldeko, Oiartzualdeko eta Donostialdeko 250 bat eragilerekin harremanetan jarraitzen du Orona Fundazioak; tartean, Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta unibertsitate-mailako 50 ikastetxe daude, gutxi gorabehera.



"Bakardadeari begira" erakusketa, Matia Fundazioaren ekimenez, Orona Fundazioaren hallean



Zientziaren Astea. Zenbait ikastetxetako ikasleak etorri ziren Orona Ideoren instalazioak ezagutzera



Five Seasons: The Gardens of Piet Oudolf dokumentalaren proiektzioa eta hari buruzko solasaldia, Chillida Lekuren ekimenez



6.5 Martxan dauden proiektuen helburuak

Gizarte konplexu batean, gizarte-berrikuntzako jardueretan, ezinbestekoa ez ezik aberasgarria ere bada proiektuak zeharkakoak izatea, eta eragina izan dezake aldi berean Kanpo zein Barne Garapenean.

Orona Fundazioa Gizarterantz programaren bidez, eta erakundeekin batera proiektuak eginez, eragiten ari da aberastasuna sortzeko, gizartea eta kultura garatzeko, eta unibertsitate-aurreko mundu akademikoarekin batera lan egiteko.

7. Ekarpen-eredua

Ekarpen-eredua proaktiboa da. Gizarte-eragileekin batera jarduerak egiten dira, eta baliabideak jartzen dira horretarako: azpiegitura, giza kapitala, harremanetarako ahalmena eta baliabide finantzarioak. ORONAK bere Fundazioa sortu du bere gizarte-ekintzan berritzeko tresna izan dadin, eta, hala, fundazioaren lana gehitzen die kooperatiba denez jada historikoki egiten dituen diru-ekarpenei.



■ 8. Proiektuak

8.1 7.1 Diametro 200

Orona Fundazioak ORONA osatzen duten pertsonen garapena bultzatzen du, bere lan-ildoari eutsiz.



Oronaren Hernaniko instalazioetan Orona Ideoren ekosistema osatzen dugun pertsonen elikadura-zerbitzu on, garbi eta bidezkoa ematea da proiektu honen xedea. ORONAn lan egiten duten guztiak elikagai osasungarriak jatea. Horrekin lotuta, jarduera fisikoa ORONako pertsonen eguneroko bizitzako elementu izateko jarduerak sustatzen ditugu.

Oinarri hauek ditu proiektu horrek:

1. ORONAK elikagai natural eta osasungarriak ematen dizkie langileei. Filosofia horren barruan, lehentasuna izango dute sasoiko eta inguruko produktuek; batez ere, ekologikoki ekoizitakoak.
2. Inguruko landa-garapenean laguntzen du ORONAK, enplegua finkatuz eta sortuz sektore horretan, lehentasuna ematen baitie eskualdeko produktuei. Azken batean, aberastasuna sortzen du inguruan, Fundazioaren helburuekin bat.

Diametro 200 proiektuak badu osagai bereizgarri bat: modu osasungarrian elikatzeko, elikagai ekologikoak eta/edo tokikoak eta garaian garaikoak erabiltzen dira. Gainera, inguruko landa-ingurunearen garapenera balioa ematen dion elementu traktorea da proiektua, inguruko nekazari txikien jarduerari laguntzen baitie.



Orona Fundazioan barazki-otarrak jasotzeko puntua

Elikadura-zerbitzu onarekin esan nahi da eskaintza zapore onekoa, kalitatezkoa eta tokikoa izatea. Tokikoarekin esan nahi da elikagai guztiak 200 kilometroko diametroko zirkulu geografiko batean lortzen direla.

Garbiarekin esan nahi da elikagaiak artisauek eratu eta modu tradizionalan landu direla, lurra, itsasoa eta airea errespetatuz, kutsatu gabe eta animalia eta landare transgenikorik erabili gabe.

Eta, azkenik, justuarekin esan nahi da nekazariak, abeltzainak eta arrantzaleek prezio justua kobratzen dutela beren lanaren truke.



Aiora Etxeberria. Komuntzo Baserria



Karabeleko: Hernaniko etxalde agroekologikoa.

IRAILAK 7 11:00 ORONA FUNDAZIOA Orona Idoa, Galaretza, Hernani Autobus: 61 linea (12) Hernani Aste-Domortza 63 linea (30) Auzolari-Orditokiak

LANDARE ETA LOREEN KONTSULTA AURREZ AURRE

Baratzetik platerera sortzen dugun paisaia

INIGO SEGLUROLA


JAKOBA ERREKONDO

<p>DIAMETRO 200 PROIEKTUA</p> <p>INIGO MARQUET BELDARRAIN Orona Fundazioaren koordinatzailea</p> <p>FEDE PACHA GOIKOETXEA</p> <p><small>Irteerak eta 1000 euroko proiektuak 2019ko irailean abiaraziko dira.</small></p>	<p>KARABELEKO EKONEKAZARITZA ETXALDEA</p> <p>OIER IURRAMENDI ETXEBERRIA</p>	<p>LUR GARDEN EGITASMOAREN AURKEZPENA</p> <p>INIGO SEGLUROLA ARREGI</p>	<p>BIZI BARATZEA</p> <p>JAKOBA ERREKONDO SAITSAMENDI</p>
---	--	--	---

* BERTAKO ETA GARAIKO PRODUKTU EKOLOGIKOENIN CSATUTAKO LUNTZA

Produktuak: ARGIA BIZI BARATZEA Orona E200 Karabeleko

Barazkigintzarekin lotuta irailean egin zen hitzaldia





Tenpora taldearen kontzertua Albaolan

8.2 Kultura musikala

Orona Fundazioak badaki du nolakoa den bere inguruko errealitate soziala, eta, horregatik, Kultura Musikala izeneko proiektua jarri du martxan.

Musika elementu kultural gisa hartuta ingurunea garatzea oso egokia da, gure ingurunea lehenik ere musikan hain aberatsa izanagatik. Orona Fundazioak, Kultura Musikala proiektuaren bidez, inguruneko musika-erakundeen parte aktibo izan nahi du, inguruneko gizartearekin lotura eduki nahi baitu eta horrek aukera ematen baitio fundazioari zenbait kolektibotatik gertuago egoteko.

Modu batera ala bestera, gure inguruneko eragile askok lotura dute musikarekin musika-elkarteen bidez; adibidez, eskolen, kontserbatorioen, taldeen, banden eta orkestren bidez.

Bada, eragile horiek ere garrantzitsuak dira gure gizartea kohesionatzeko.




Francisco Escudero kontserbatorioaren ikasturte-amaierako kontzertua

8.3 Ondare inmateriala

Talde baten kultura-ondarea osatzen duen ondasun ukiezin oro da ondare immateriala. Fundazioak, proiektu honen bidez, inguruko lurraldeko ondare immaterialaren balioa nabarmendu nahi du; historia eta tradizioak ikusgai jarri nahi ditu, zibilizazio unibertsalari ekarpen bat egiteko. Horretarako, hasteko, balioa eman nahi die Orona Fundazioak ondare hauei: euskal zibilizazioa, mendizaletasuna, euskal pilota eta halako beste jarduera batzuk; euskara, hizkuntza berezi bakartu gisa, eta itsasoa, garapenerako eta bizikidetzarako giltzarri gisa.

Ondare immaterialaren proiektuaren ikuspegi orokorraren arabera, ondare horrek bizirik jarraitu behar du gure gizartearen, ekarpen gisa eta etorkizunerako begirada gisa.

Ondare immaterialaren proiektuaren ildoak




Mendizaletasunari dagokionez, euskal mendizaletasunaren garrantzia azpimarratzea da Fundazioaren xedea; hau da, Euskal Herriko mendietako ondare historikoa eta garrantzia gorde eta erakustea. Fundazioaren ikuspegia, berriaz, mendizale-jarduera jende gehiagorengana helaraztea da, gazteengana batez ere. Eta kirola alde batera utzita ere, mendian bertan, euskal kulturaren bilakaeraren aztarnak ditugu.



CVCEPHOTO lehiaketaren 2019ko sari-banaketa

Itsasoari dagokionez, Orona Fundazioak balioa eman nahi dio ontzigitzari buruzko jakintzak joan diren mendeetan Euskal Herriko gizartearentzat izan zuen garrantziari, gizarte hura mundura zabaltzea erraztu baitzuen. ORONAK garai hartako gizarteko balioekiko enpatia sentitzen du, eta partekatu egiten ditu; izan ere, konpainiaren egungo estrategiaren ardatzak dira, besteak beste, berrikuntza teknologikoa eta nazioartekotzea, eta estrategia horiek bat egiten dute euskaldunon itsas ondare immaterialarekin.



Albaola Itsas Kultur Faktoria, San Juan baleontzia berreraikitzen



Galarretako 2019ko erremonteko finala



TOR filmaren proiektzioa (Mikel eta Iñaki Urresti dira filmaren zuzendariak)
Ondoren, solasaldia, mendia eta emakumea gai hartuta

Pilotaz ari garela, pilota-modalitate desberdinak bultzatu nahi ditu Fundazioak —modalitate arkaikoak barne—, jendeak ezagut ditzan. Era berean, hau da Fundazioaren ikuspegia: funtzio pedagogikoa ematea pilotari, pilotan jokatzeko ikasteko eskolak sortzea eta ikasleen artean eskola-kirrol nagusietako bat izatea.


Euskarari dagokionez, Orona Fundazioak ahalegina egin nahi du euskara hizkuntza normalizatua izan dadin, euskara ikasten dutenek, teknologia berrien bitartez, beste hizkuntza batzuk ikasteko dauden baldintzak eta mekanismoak izan ditzaten eta, halaber, gazteen artean irakurtzeko zaletasuna zabaldu dadin.

Azkenik, euskal zibilizazioari dagokionez, gure iraganeko alderdi garrantzitsuei buruzko dibulgaziozko espazioak ireki nahi ditu Fundazioak (adibidez, zuraren kudeaketa, baleontzien historia, Baskoniako historiaren ikerketa eta zabalkundea).

Era askotako erakundeek jasotzen dute proiektu honen onura. Fundazioak, gainera, ikusgaitasuna ematen die, eta haien arteko harremanak sustatzen ditu; ondorioz, sinergia berriak eta jarduera gizartearentzako berritzaileak sortzen dira. Era askotako erakundeek jasotzen dute proiektu honen onura. Fundazioak, gainera, ikusgaitasuna ematen die, eta haien arteko harremanak sustatzen ditu; ondorioz, sinergia berriak eta jarduera gizartearentzako berritzaileak sortzen dira. Tokiko gizarteak, oro har, gazteek eta ORONako langileek ere jasotzen dituzte onurak.

Jarduera-kopurua kategoriaren arabera

Ondare inmateriala. Familiak



Ondare Immateriala Proiektua



Atlantiar kongresua, Jauzarreak antolatua.
Stephen Augustineren hitzaldia.



Arantzazu, harriz herri dokumentalaren proiektioa.
Antolatzailea: Nabarralde.

8.4 Akademikoa

Teknologia berriak iritsi dira, eta eguneroko bizitzan ugartu egin da haien erabilera. Horrek aldaketa handiak ekarri ditu hezkuntza-paradigma eta -eredu tradizioaletan, eta irakasleen nahiz ikasleen rolak aldatzen ari dira.

Mundu guztiko hezkuntza-sistemek aldaketa handiak izango dituzte datozen urteetan. Orona Fundazioak, hori guztia kontuan izanda, konpromiso bat hartu du, eta Proiektu Akademikoa sortu du.



Zinetek saioa, Zubiri Manteoko ikasleek dinamizatuta



Zinema-ikasleen nazioarteko topaketa Tabakaleran; Oronak babestu zuen



Zaldi Urdina. Gazteen droga-menpekotasunaren gaiaren inguruko antzerki-obra

Fundazioak, proiektu honen bitartez, hezkuntza-berrikuntza bultzatu nahi du ikasleei gaitasun berriak garatzen laguntzen dieten irakaskuntza-erakundeen artean.

Horretarako, Orona Fundazioak, Proiektu Akademikoaren barnean, aldaketarako onuragarriak izango diren edukiak eman nahi dizkio inguruko hezkuntza-komunitateari.

Proiektuaren ikuspegi orokorraren arabera, aldaketa erreal eta iraunkorrak sortu nahi dira gure inguruneke hezkuntza-ereduan. Azken finean, ikaste-ingurune eraginkor, motibatzaile eta konstruktiboak sortu nahi dira, egungo beharretara egokituak, gizartea ere etengabe ari baita aldatzen eta gero eta lehiakorragoa baita.



Zaldi Urdina. Gazteen droga-menpekotasunaren gaiaren inguruko antzerki-obra.



Zientziaren Astea Orona Ideon




IdeoLab campusa, Orona Ideon




IdeoLab campusa, Orona Ideon

Proiektuen garrantzia, egindako jarduera-kopuruaren arabera



Gastuen eboluzioa proiektuko



8.6 Jarduera bereziak

Jarduera batzuk zeharkakoak dira, eta beste batzuk zailak dira sailkatzen. Atal honen helburua da bi lan-ildo garrantzitsuak identifikatzea

Lehenik eta behin, Chillida Lekurekin egin dugun auzotasun-hitzarmena nabarmendu nahi dugu —zehazki, haren kudeatzaileekin, Hauser & Wirth enpresarekin—. Hitzarmen horren bidez, bi proiektuen arteko sinergia bideratu nahi dugu, elkarrengandik oso hurbil baitaude proiektuak, bai geografikoki eta bai balioei, lurraldearekiko lotura estuari eta begirada unibertsalari dagokienez.

Hitzarmenari esker, Oronako 112 langilek eta haien senideek bisita gidatuak egin ahal izan dituzte museoan; 473 bisita guztira. Bestalde, Chillida Leku museoari gure instalazioak utzi genizkion *Five seasons* ekitaldia egiteko, museoaren kolaboratzaile Piet Oudolf paisajista ospetsuak gidatuta. Hitzarmenaren barruan, gainera, Diametro 200 elikadura-eredua Oronā Ideotik museoako Lurra kafetegiraino eraman dugu.

Beste ildo batetik, genero-berdintasunarekin lotutako ekimen batzuk ere egin ziren, Oronā S. Coop.-eko berdintasun-batzordearekin elkarlanean, Emakumeak izeneko gaiaren barruan. Hauek, besteak beste: TOR filmaren proiektzioa eta ondorengo solasaldia, *Eten barik* jotzen proiektuarekiko elkarlana, emakumeek soilik ekoiztutako lehengaiekin osaturiko menua ematea martxoaren 8an, emakumez soilik osatutako talde batek parte hartzea Donostiako Enpresen Lasterketan eta BA liburuaren edizio-lanean laguntzea.



BA liburuaren azala



TORen proiektzioa



Bisita gidatua Chillida Lekun


Ø200		GAUR ERE NI ZINGO NAIZ...	Ostirala - Viernes
MARTXOAK 8 Emakumeen Nazarteko Eguna		HÓY TAMBIÉN SERÉ YO...	MARZO El Día Internacional de las Mujeres
LEHENABIZIKOAK		PRIMEROS	
"MIHI-BERDEA" ETA EUSKAL HERRIKO GAZTEKIN EGINDAKO ENTSALADA Plater honek duena: Entsalada		ENSALADA "MIHI-BERDEA" CON QUESOS DE EUSKAL HERRIA Este plato contiene: Entsalada	
AZALORE ETA BROKOLIA OLIO ERREAREKIN		COLIFLOR Y BRÓCOLI CON REFRITO	
BABARRUNAK, IBARRAKO PIPARREKIN Plater honek duena: Suitztsak		ALUBIAS CON GUNDELLAS DE IBARRA Este plato contiene: Suitztsak	
SIGARRENAK		SEGUNDOS	
ARKUME EKOLÓGIKO ERREGOSIA		CORDERO ECOLÓGICO GUISADO	
"EUSKAL-UNTZIA" GARAGARDOTAN Plater honek duena: Suitztsak		CONEJO "EUSKAL-UNTZIA" A LA CERVEZA Este plato contiene: Suitztsak	
POSTREAK		POSTRES	
LARRETA ETA MAHALA JOGURTAK Plater honek duena: Entsalada		YOGURES DE LARRETA Y MAHALA Este plato contiene: Lácteos	
MAMIA Plater honek duena: Entsalada		CUAJADA Este plato contiene: Lácteos	

Diametro 200ek martxoaren 8an, Emakumeen Egunean, prestatutako menua


9. Jardueren zerrenda

2014tik 102 jarduera egin dira, baina, memoria honetan, 2019an "bizirik" zeudenak soilik azaltzen dira: 54, hain zuzen. Jarduera horien emaitza dira gorago aipatutako proiektuak.

Orona Fundazioaren jardueren onuradun nagusiak



Fundazioaren jardueren gaur egungo inpaktua



9.1 Diámetro 200

Menú Orona

Gure Elikagai SL enpresak du emakida, eta, hark ematen ditu jatordu- eta kafetegi-zerbitzuak Orona Ideon eta Lastaolan, bai ORONAKo langileentzat, bai kanpoko bezeroentzat.

Orona menua tokiko ehun nekazari inguru dinamizatzeko elementu traktorea da; haiek sortzen dituzte Orona Hernaniko langileei jaten emateko elikagaiak. Egunean 600 menu ematen dira.

Etxera eramateko janaria eta fruta *officean*

Ekimen hauek ORONAKo langileen artean kultura osasuntsua bultzatzeko neurrietako bat dira: eguneroko menua etxera eramateko aukera dute langileek, eta *officean* nekazaritza ekologikoko frutak izaten dira.

Baratzatik etxera

Kontsumo-talde bat jarri da martxan Orona Ideoko langileen artean, eta taldekideek Karabeleko etxalde agroekologikoan sortutako barazkien otar bat jasotzen dute astero; hala, are eragin handiagoa izan dezakete gizartean.

IV. GAMA: Mihiberdea proiektua

Elikadura-berrikuntzako proiektu erreal bat bultzatzen du jarduera horrek. HORECA sektorea produktu berriz hornitzea da helburua, inguruko jatetxeek *mezclum* ekologiko apartak izan ditzaten, adibidez.

Karabelekoren lursailean gaixotasun mentalak dituzten pertsonak aritzen dira lanean, AGIFESek dinamizatuta. Lursail horietan, lehengaiez gainera, lehen kalitateko elikagai eraldatuak egin ahal izatea lortu nahi da.

Karabelekok zuzentzen du proiektu hori, eta laguntzaile ditu Orona Fundazioa, Diámetro 200 jatetxea, Basque Culinary Centerreko berrikuntza-saila eta nekazaritza ekologikoko Ernetuz enpresa. 2019an gauzatu da proiektua.

Karabeleko: Baratzako terapia

Karabeleko lursaila Hernanin dago, eta Diámetro 200 - Slow kafetegiaren barazki freskoen hornitzaile nagusia da. Bereztasun bat du: gizarteratzeko arazoak dituzten pertsonak lan egiten dute han; zehazki, gaixotasun mentalak dituzten pertsonak.

Gainera, Karabelekok paisaia-balioa ematen dio Hernaniko hiri-inguruari, gertutasunezko merkatua bultzatzen du, eta biodibertsitatearen aldeko lana egiten du, barazki-, fruta- eta lekale-barietateak berreskuratzen baititu.

Enpresen Lasterketa

ORONAKo langileek Enpresen Lasterketan parte hartzea sustatu zuen Orona Fundazioak. Oronako 52 langilek parte hartu zuten, zortzi taldetan. Jarduera horrek enpresa osasungarri bat lortzeko Fundazioaren ikuspegia bultzatzen du.

Bizi Baratzea hitzaldia

Jakoba Errekondo adituari baratzezaintzako kontsultak egiteko erabili zen gure auditorioa.

9.2 Kultura musikala

Zarzuela Victoria Eugenia

Orona Fundazioak, Sasibil elkarte lirikoarekin batera, diruz laguntzen die 2017tik Donostiako Victoria Eugenia antzokian egin diren zarzuela-kontzertuei.

Elkano disko-liburua. Euskal Barrok ensemble.

Orona Fundazioak edizio hau argitaratzen lagundu du, ondare immaterialaren proiektuaren arloko zeharkako ikuspegiarekin. Euskal Barrok ensemblek, lan honetan, ikerlan bat egin eta XII. mendetik gaur egunera arteko musika-lanak berreskuratu ditu. Lan horietan, Elkano ardatz harturik, kultura desberdinen arteko loturaz hitz egiten da.

Zinemako ahotsak

Zinemaren eta musikaren arteko harreman luzea omentzen du lan honek. Ekimena Ainhoa Zubillaga mezzosopranoak sortu zuen 2010ean, eta Iñaki Salvador piano-jotzailea batu zitzaion; Iñakik moldatu ditu aukeratutako melodiak. Urte batzuk pasatu ondoren, Mikel Andueza saxo-jotzailea batu zaio proiektuari, eta disko bihurtu da.

Orona Kontzertua

Fundazioak seigarren kontzertua antolatu du. Aurtengo figura nagusia Noa abeslari israeldarra izan da, eta Pasi3n Vega, Et Incarnatus Orkestra eta Iñaki Salvador piano-jotzaile donostiarrak izan ditu lagun.

Aita Donostia musika-astea

Proiektu horretan Oronaren diru-laguntza jaso du Kamerata Euskadivariusek.

9.3 Ondare inmateriala

9.3.1 Mendia

Euskal mendizaletasunaren historia

Euskal Mendizaletasunaren Museoa Fundazioak (EMMOA) diziplina anitzeko ahalegin handi bat egiten du euskal mendizaletasunaren ondare historikoa zaintzeko eta gizarteari erakusteko. Orona Fundazioak babes ekonomikoa ematen dio EMMOARI hark ondare inmateriala berreskuratzeko egindako ahaleginagatik, eta, bereziki, mendizale zaharrenen testigantzak jasotzeko.

Menditour

Era berean, mendizaletasuna gazteen artean bultzatzeko, eta Bilbao Mendi Film Festivalen laguntzarekin, Menditour Orona Fundazioa zinema-jaialdia antolatu da bosgarrena urtez jarraian. Orona Fundazioa da ekitaldiaren sustatzailea, eta antolatzailea, berriz, Bilbao Mendi Film Festival, Club Vasco de Camping Elkartearekin laguntzarekin.

Zehazki, Bilbao Mendi Film Festival jaialdiko mendiko zinemako filmak eman ditugu. Gazteentzako filmak, balioetan oinarritutako edukiak garatzen dituztenak, aukeratu genituen. Mendizaletasunaren balioak zabaldu eta jarduera osasungarriak sustatu nahi genituen. Horrez gain, gure artean hain preziatua den jarduera hori Oronako langileei gerturatu nahi genien. Aurten, maiatzaren 8an egin zen ekitaldia.

CVCEPHOTO

Orona Fundazioa lankidetzan aritzen da Club Vasco de Camping Elkartearekin (CVCE), mendizaletasuna gazteen artean ikusgai jartzeko. CVCErekiko harremanak epe luzerako ikuspegia du; horregatik, mendia balioa azpimarratzeko jarduera batzuetan parte hartzen du Orona Fundazioak; adibidez, CVCEPHOTO mendiko argazkien nazioarteko lehiaketan, zeinak, bost edizio besterik ez izan arren, ospe handia hartu baitu. Argazki-erakusketa ORONAREN instalazioetan ere jartzen da.

Ereñozuko mendi-lasterketa

Diruz lagundu dugu kirol-jarduera hori.

9.3.2 Itsasoa

Albaola

Albaola Fundazioak eta Orona Fundazioak balio eta helburu batzuk partekatzen dituzte, eta, horren ondorioz, etengabeko lankidetzak-harreman bat sortu da bi fundazioen artean, helburu komun bat dutela: ingurunearen garapena bilatzea, hain zuzen ere, ingurune berekoak baitira biak. Kasu honetan, Pasaia Badiaren ingurunearen garapenean lagundu nahi da, eskualde horrek suspertze sozioekonomikoa behar baitu, baliabide turistiko, kultural eta ekonomiko berri baten inguruan.

Albaolak, eta, zehazki, San Juan baleontzia eraikitzeko ekimenak, duela mende batzuk euskaldunek itsasketa-teknologiaren eta itsasontzigintzaren inguruan izan zuten ezagutzak eta nagusitasunak euskal gizartean zer-nolako indarra izan zuten nabarmentzen dute. Ezagutza teknologiko horri esker, inguruko ekonomia garatu zen, eta, horren ondorioz, mundura zabaldu. ORONAK garai hartako euskal gizarteko balioekiko enpatia sentitzen du, eta partekatu egiten ditu; izan ere, konpainiaren egungo estrategiaren ardatzak dira, besteak beste, berrikuntza teknologikoa eta nazioartera zabaltzea.

Orona Fundazioak Albaola Itsas Kultur Faktoria berritzen lagundu du: museo bizi eta gizatiar bat da. Kooperatibak irisgarritasun-azpiegituraz hornitu zuen Oiartzualdeko ekipamendu kultural berria.

Bi erakundeen arteko lankidetzaz hitzarmenak emaitzak eman ditu, eta Orona San Juan sareko kide bilakatu da. Oronako langileak sarri joaten dira Faktoriara. Orona Fundazioak eta Albaolak askotariko lankidetzaz-ildoak dituzte; gaur arte, besteak beste, espazioak partekatu dituzte, eta gizarte-bazterketako arriskua duten pertsonen proiektuan sartzeko bidea errazteko kanpainak diseinatu dituzte.

Nabarmentzekoa da San Juan baleontziaren funtsezko pieza bat babestu izana: dibidietza, hau da, antzinako karga-jasogailu bat.

Masta nagusiko gabia ere babestu du Fundazioak.

2019an, *Ongietorri ikastolara* proiektua jarri da martxan; tailer batzuen bidez, etorkinen familiak integratzen laguntzea da asmoa, eta Oronak diruz laguntzen du ekimen hori.

Elkano-Mundumira

Orona Fundazioak babesaren ematen dio Elkano Mundumira Fundazioari, Sevillako Indietako Artxiboko ikasle baten beka finantzatuz.

9.3.3 Pilota

Erremontea

Orona Fundazioaren iritziz, pilota ere bada kultura-ondarea, eta hor sartzen da erremontea. Nafarroako eta Gipuzkoako modalitate hori gure inguruko bi frontoitan bakarrik jokatzen da: Galarreta frontoian (Orona Ideoren aurrez aurre dago) eta Uharteko Euskal Jai Berri frontoian.

Erremontea xistera erabiltzen duen euskal pilotaren modalitate ikusgarrietako bat da. Pilotariak, teknika erabiliz, abiadura handian jotzen du pilota xisterarekin eskuaren parean, eta xisteran gorantz abiarazten du, puntatik atera arte.

Antiguako pilotazaleok txapelketa

Orona Fundazioaren diru-laguntzari esker egiten da Antigua auzoko udako pilota-txapelketa, Donostian. Amateur mailako pilota-txapelketa zaharrena da.

Bote luzea

Oiartzungo Txost elkartearekin lanean aritu gara, euskal pilota-modalitate hori berreskuratzeko.

9.3.4 Euskara

Arian - Atari digitala

Elkar Fundazioak errealitate bihurtu du euskarazko lehenengo autoikaskuntza-metodoa: "Arian". Beste hizkuntza batzuetarako erabiltzen diren nazioarteko estandarren arabera egina dago. Orona Fundazioak dirulaguntza ematen dio jarduera horri, eta gizarteratzen ere laguntzen, besteak beste, euskararen eta teknologia berrien arteko erlazioak bat egiten baitu Fundazioaren nahiz enpresaren balioekin.

Oxigenoa euskarari 6000 metroan ere

Mendiak eta Herriak mendi-giden elkartearekin elkarlanean, euskararen erabilera normalizatua eta beste kultura batzuekiko harremana garatzeko proiektu bat lantzen ari gara, mendizaletasunaren balio onenak oinarri direla. Dokumental bat prestatzen ari gara, 2020an eskoletan erakusteko.

9.3.5 Euskal zibilizazioa

Ikerkuntza eta Zabalkundea 2017-2019

Eusko Ikaskuntza erakundea 1918an sortu zuten Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako foru-aldundiek. Baskonian ofizialki aritzen den diziplinarteko elkarte zientifiko bakarra da. Ikerketa- eta zabalkunde-proiektuak egiten ditu elkarteak. Orona Fundazioak ekonomikoki laguntzen du Ikerkuntza eta Zabalkundea 2017-2019 ekimena, eta, gainera, espazioak uzten ditu elkartearen ekitaldiak antolatzeko.

Atlantiar, amaiera-kongresua

Jauzarreak, euskal kulturaren azterketarako eta zabalkunderako funtsak, kulturarteko eta kultura anitzeko loturak sortzen ditu, eta ondare materialaren eta immaterialaren arloak konbinatzen ditu euskal kulturaren azterketa, ikerketa eta zabalkundea bultzatzeko.

Jauzarreak ATLANTIAR kongresua antolatu du, eta Orona Fundazioaren instalazioetan egin da. Nazioarteko aditu ospetsuek hartu dute parte, hala nola: Peter Bakker, Theo Vennemann, Xarles Bidegain, Stephen Oppenheimer, William Fitzhugh, Stephen Augustine, Bruce Bradley, Joëlle Darricau, Xabi Otero, Ron Williamson, Richard Peltier eta Idoia Arana-Beobide. Urriaren 18an egin zen.

Oreki Fundazioa

Orona Fundazioaren instalazioetan, gure gizartearen aktibazio sozialari buruzko mintegiak egin dira.

Arantzazu Harritz Herri

Dokumentala finantzatu da, eta auditorioa utzi dugu, han aurkezteko.

Arantzazu, bere historia osoan, euskaldunon memoriako toki bat izan da; artea eta kultura oinarri hartuta eraiki da, harritz harri, eta beti erakutsi du herriarekin duen konpromisoa. Jorge Oteizak basilikaren aurrealdean apostoluak jarri zituenetik 50 urte bete diren honetan, garai haren berri ematen du dokumentalak: Arantzazu erreferentziatzko toki bihurtu zen orduan, eta artea eta euskara izan ziren —azken batean, kultura— herriaren babeslekua.

Eten barik jotzen

Eten barik jotzen dokumentala egiteko proiektua diruz lagundu du Oronak. Dokumental horrek, gure historiari begiratu, eta emakumezko pandero-jotzaileetan jartzten dugu arreta, eta haien bidez erakusten du zer-nolako borroka egin zuten emakumeek beren eskubideak lortzeko eta eremu publikoan agertzeko.

BA

BA liburuaren edizio mugatu bat finantzatu du Orona Fundazioak. Euskal mitologia du oinarri kontakizunak, historia eta fikzioa nahasita.

TOR

Silvia Trigueros du protagonista TOR dokumentalak. Hura ikusita, emakumeen eguneroko errealitateari buruzko solasaldia egin zen gero. Jarduera hark —eta *Eten barik jotzen* eta BA ekimenek— emakumeen gaiarekin lotutako hausnarketa bultzatu zuten.

9.4 Akademikoa

Agur ikastolari

Axular Lizeoak antolatzen du ekitaldia, ikastola horretan batxilergoa bukatzen duten ikasleei agur egiteko.

Campus IdeoLab (Kultura digital@)

Ideolab campus teknologiko bat da, eta Gabonetako, Aste Santuko eta udako oporretan egiten da. 5 eta 16 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago, eta kultura digitala eta programazio-prozesuaren sozializazioa garatzea du helburu, helduak direnean mundu teknologiko batean moldatzeko beharko duten logika bat konfiguratzeko oinarri gisa. Hirurehun bat gaztek parte hartu dute.

2017tik, Gipuzkoako Foru Aldundiak bat egin du ekimen horrekin, Kultura Digital@ programaren barruan sustatzeko.

PBLday

Martxoan, Mondragon Unibertsitatearen bultzadarekin, PBLday ospatu genuen: unibertsitate horretako ingeniari-tza-fakultateko ikasleak Orona Ideon izan ziren egunaz gozatzen; egun horretan, ikasleak dira protagonista, 30 proiektu hautatueta gehien nabarmendu zenari sari bat eman baitziren Orona Fundazioak. Problem Based Learning (PBL) metodologiak benetako arazo bati irtenbidea ematen dioten proiektuak egitean oinarritzen du ikasketa. Horri esker, ikasleek eginez ikasten dute.

Zinetek

Orona Fundazioak helburu du ikasleei trebakuntza konbentzionala osatzeko balio dieten jarduerak sustatzea. Gazteek beren gaitasunak hobetu ditzaten eta espiritu kritikoa gara dezaten nahi du Fundazioak.

Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta unibertsitateko ikasleei zuzendutako proposamen bat da Zinetek, Orona Fundazioaren eta Donostiako Zinemaldiaren arteko lankidetzari esker sortua. Ikasleei proiektuetan ageri diren gaiak bistarazi nahi zaizkie, beren bizitza profesional osoan topatuko baitituzte —bereziki, teknologia—. Hori guztia kalitateko film hautatu batzuen bidez. Balio pedagogiko erantsi gisa, ikasleek aurkeztu dituzte filmok. Ondorengo eztabaida ere ikasleek berek zuzendu dute. Gazteek

profesionalekin lan-bilerak egitea nahi dugu (kasu honetan, Donostiako Zinemaldikoekin), eta taldean lan egiteko eta komunikatzeko gaitasunak eta trebetasunak garatzea. 2019an, bosgarren edizioa egin da. 11 ikastetxetako 887 ikaslek hartu dute parte.

Nest Film students

Orona Fundazioak Donostiako Zinemaldiari lagundu nahi dio, jarduera kultural nabarmen eta estrategikoa baita gure ingurunekeo garapen kultural, sozial eta ekonomikorako. 2019tik, babesle nagusia da Fundazioa, eta berak ematen du NEST Film Studentseko sari nagusia.

Orona Fundazioak, gainera, gai horretan bokazioa duten gazteen partaidetza sustatzen du; hainbat motatako ekitaldietan hartzen dute parte, hala nola ikasgai magistraletan, hizketaldi eta ikustaldietan, lantegietan eta topaketaren inaugurazioan eta itxierako jaietan.

Zientiaren Astea

Klasiko bihurtu da jada Fundazioak Ikerlanekin eta Mondragon Unibertsitatearekin —hau da, Orona Ideoko berrikuntza-ekosistemako kideekin— antolatzen duen zientiaren astea. Orona Ideoko ingeniari-talderak modu dibertigarrian probatzeko aukera izaten dute gazteek, eta, hala, bultzada ematen zaie haien bokazio teknologikoei.

Aurten, 7 ikastetxetako 289 ikaslek hartu dute parte.

Laguntza eskoletako koru-eskolei

ORONAK Donostiako Orfeoia eta Landarbaso abesbatza babesten ditu, eskoletan ikasteko baliabide gisa sustatzen baitituzte kultura musikala eta musika. Eskoletan koru-eskolak ematea sustatzen eta laguntzen dute.

Ficab

Orona Fundazioak laguntza ematen dio Bidasoko Nazioarteko Zinemaldi Arkeologikoari: auditoriuma uzten dio sail akademikoko ikus-entzunezko lanak emateko, eskola-umeek arkeologia ezagutu dezaten. Aurten, bigarren edizioa egin da.

Ikasleen bisitak Orona Ideora

Lanbide-heziketako, batxilergoko eta unibertsitateko ikasle eta irakasleak Orona Ideora joaten dira bertatik bertara ezagutzeko enpresaren ibilbidea, haren negozio-eredua, estrategia eta datuak, besteak beste. Aurten, zehazki, batxilergoko, lanbide-heziketako eta unibertsitateko berrehun ikasle inguru izan dira Orona Ideoren instalazioetan.

Zaldi Urdina

Bi saio babestu dira. Saiook Donostiako Egia auzoko kultura-etxean egin dira, eskola-umeentzat. Drogek dituzten arriskuei buruzko antzerki-obra bat da.

Laneki Jakinbai.eus

Lanbide Heziketako materiala euskaraz sortzea sustatu da Jakinbai programaren bidez.

Zinea ikasgelan

Kohesio sozialaren arloko jarduera bat da hau; izan ere, etorkin askoko ikastetxe bateko neska-mutikoekin egiten da. Ikasleek film bat egiten dute, zeinak gero parte hartzen baitu Begiradak - *Las otras miradas* jaialdian.

Proiektu pedagogikoko berriak

Orona Fundazioak diruz laguntzen dio Kilometroak jaiari, jakinik gero diru hori instalazioak egokitzeko erabiliko dela —ikasle bakoitzeko metro koadro gehiago eta balioiztasun handiagoa—. Horretaz gain, irakasleentzako trebakuntza-saioetarako bere auditorioa uzten die Ikastolen Elkarteari, Berritzeguneari (sare publikoa) eta beste ikastetxe batzuei.

9.5 Kohesio soziala

Orona Kontzertuko zero ilara: ICLI

Orona kontzertuko zero ilarako jarduerarekin, Ingeniería para la colaboración- Lankidetzarako ingeniari-taldea GKEari lagundu genion. Jarduera horrek, gainera, jarraipena izan zuen: argazki-erakusketa bat egin zen Orona Fundazioaren hallean.

Hemen posible da: "Begiradak- Las Otras Miradas" zinemaldia

Zinema adierazpide bat da ORONArentzat, eta adieraztea da, hain zuzen, Begiradak zinemaldiaren helburua.

Ikasleek eta gizarte-erakundeetako kideek parte hartzen dute zinemaldi honetan. Jarduerak bukatzeko, Zinema eta Hezkuntza Foro bat eta itxiera-ekitaldi bat egiten dira, sari-banaketarekin batera (Aquariumen).

Jarduera horiek Ikertze kultur elkarteak antolatu zituen. Orona Fundazioak proiektuaren filma egiten lagundu du.

Pertsona nagusiak ORONA Kontzertura gonbidatzea

Oronaren Gabonetako kontzertura gonbidatu dira Matia Fundazioan dauden adineko batzuk; berriaz hautatu dira musikazaleak direnak.

Aurten, VI. Orona Kontzertua egin da, Oronako kideak eta inguruko gizartea elkartzeko.

Desgaitasunak dituzten haurrentzako udako campusa

Hegalak Zabalik Fundazioak eta Kirol Egokituaren Gipuzkoako Federazioak, seigarren urtez jarraian, UDAKO CAMPUSA antolatu dute Donostian 2019an, desgaitasunak dituzten 8-12 urte bitarteko haurrentzat eta 12-21 urte bitarteko gazteentzat.

Uda hastearekin batera, desgaitasunak dituzten haur eta gazteen familiak saiatzen dira beren seme-alabak udako jardueretan apuntatzen, baina askotan ezin izaten dute halakorik egin, arrazoi hauek direla medio: begiraleak ez daudelako prestatuta, ratio handiegia dagoelako arreta behar bezalakoa izateko, eta ez direlako kontuan hartzen dibertsitatea eta desgaitasun konplexuagoak dituzten haur eta gazteen ezaugarriak. Orona Fundazioak babes ekonomikoa ematen dio jarduera honi, posible izan dadin.

Esnatu, Mugitu, Ausartu Esan ezetz

Gazteen artean droga-menpekotasunak prebenitzeko jardunaldiak finantzatu dira, zeinak Donostiako Antigua auzoko gizarte- eta osasun-zerbitzuek antolatu baitituzte.

Matiazaleak

Hirugarren urtez, Matia Fundazioaren esku jarri da gure auditorioa, urteko ekitaldi garrantzitsuetako bat egiteko.

Ongietorri eskolara

Gipuzkoako ikastetxe publiko eta pribatu batzuek integrazio-dinamika bat jarri dute abian, bertako familiak eta etorkinenak aisialdia elkarrekin igarotzea oinarri hartuta. Albalarekin elkarlanean, Euskal Itsas Faktoriako tailer batzuk jarri dira martxan.

Draver fundazioa

Auditorioa utzi diogu fundazio horri, "Monólogos para un sueño" ekitaldiaren bidez dirua biltzeko.


Bizilagunak

Auditorioa utzi diegu, etorkin-familiak integratzeko antolatutako ekitaldia egiteko.

Guneak erabiltzeko aukera

Fundazioak guneak utzi dizkie irabazi-asmorik gabeko erakundeek, beren jarduerak egin ditzaten. Goian aipatutakoei ez ezik, beste hainbat erakunderi ere utzi dizkiegu. Espazio horiei legokiekeen tarifa 75.830 euroren baliokidea da.

10. Kudeaketako beste alor batzuk



Orona Fundazioan egindako ekitaldiak

10.1 Ekitaldien kudeaketa

Orona Ideo topagune bat da inguru hurbileneko eragileentzat. Horrez gain, hirugarren batzuen ekitaldiak ere egiten dira han. Hauek dira, zehazki, aurtengo datuak:

- 190 bilera edo ekitaldi.
- 10.000 bisitari baino gehiago.

Orona Fundazioaren helburuekin erlazionaturako ekitaldiak ez ezik, merkataritza-jarduera ere (MICE) egiten da.

10.2 Kantina

Gure Elikagai SL enpresak Diametro 200 Slow Kafetegia ireki zuenetik ORONAREN emakida bidez, eta Lastaolan ere eredu hori ezarrita, jatetxe- eta kafetegi-zerbitzu hauek eman ditu:

- ORONAKO langileei:
 - Langileentzako self-service-a: 107.378 otordu
 - Orogunen 3.755 jatordu
- Beste zerbitzu batzuk:
 - Otorduak kafetegian, kanpoko ekitaldiak (kafeak eta aperitiboak) eta ORONAK antolatutako beste ekitaldi batzuk.

Gure Elikagaik otordu horiek guztiak emateko erositako lehengaiei dagokienez, % 74 bertako produktua, bertako eta sasoiko produktua eta/edo produktu ekologikoa izan da.

10.3 Harreman instituzionalak eta publikoak

Zuzendaritza Nagusiari laguntzeko, Fundazioaren izaeraren beraren ondorioz, erakunde-eragileekin harremanetan egon gara egunerokoan, Zuzendaritzak koordinatuta.

Gero eta ohikoagoa da, orobat, negozio-alorarekin erlazionaturako bisitei laguntza ematea, haiek positiboki baloratzen baitute gizarte-ekintza.



Orona Ideoko self service kantina



Orona

fundazioa

Orona Ideo

Galarreta
Jauregi bidea s/n
20120 Hernani (Gipuzkoa)

Latitude: 43.275987
Longitude: -1.986938

+34 943335588
info@oronafundazioa.org
www.oronafundazioa.org